

111 Akademia

Joxean AGIRRE

Orain bi aste jaso zuen Miren Amurizak 111 Akademiak ematen duen saria, seguru asko urteko ezustekorik handiena izan den bere “Pleibak” nobelarengatik. Zorionekoa da berria eta ez zuen komentario gehigarrikerik mereziko, saria ematen duen elkarteak jarraipena zalan-tzan duela iragarri ez balu.

Literatura sistema batek sorkuntzarako beka eta laguntza sare bat behar du, alde batetik, eta argitaratutako lanen ikusgarritasuna segurtatuko duena, bestetik. Gureak lehena osatua du, eztabai-dagarria eta kaotiko samarra bada ere. Hor dago, narratibaren sailean, jaur-laritzaren eta BBKren artean ematen hasi diren Xabier Lete beka, hor dago Kutxaren Irun Hiria, Ondarroako Agustin Zubikarai edo Beasaingo Igartza beka, edo hor dago Getxoko Udalaren laguntzarekin ematen duten Ramiro Pinilla saria. Azken sari honek arau salagarri bat ere badu; izan ere, parte hartu ahal izateko,

idazleak “egoitza Espainian” behar duela dio oinarrietan, Ipar Euskal Herriko idazleei sarrera galaraziz. Falta zaiguna argitaratutako lanei ikusgarritasuna emango dieten sariak izatea da.

Parisen, esate baterako, ikusgarritasun hori bermatzen duten sarien dantza etengabea izan ohi da. Hasten dira apirilean ematen duten Fregonard sariarekin, jarraitzen dute maiatzean Liburu Saltzailleen sariarekin, tartean sartzen dute Liburu Laburrarena edo Nouvel Observateurek ematen duena, batzuk bakarrik aipatzearren, eta uda ondoren etorri ohi dira handienak, Renaudot, Femina edo Goncourt bera. Eta ia guztiek antzeko eskema baliatzen dute: aditu talde batek hamar bat izenburu hautatzen ditu eta ondoren kanporaketa bidez erabakitzen da irabazlea.

Gurean ez dago halakorik, ezta hurrik eman ere, lan argitaratuak saritzen dituzten sariak bakanak baitira, nagusienak Euskadi sariak eta 111 Akademiarena.

Euskadi sariak ere jarrai zezaketen Parisko sarien eskema, has zitezkeen hautaketa batekin eta, euskaldunok hain apustu zaleak izaki, egin zezaketen kanporaketatxo bat ondoren, bertsolariekin egiten dugun moduan edo beste hainbat arlotako txapelketekin egiten den bezala. Baina sariaren opakutasuna hain da handia, non finalistak zein diren ere ez garen enteratzen.

111 Akademiarena da salbuespen bakarra, kanporaketa bidez egiten delako eta, gainera, ezaugarri oso nabarmen bat duelako: irakurleak dira bai lehen filtroak, eta baita kanporaketak egiten dituztenak ere. Eta azken ezaugarri bat: lan hori guztia doan egiten dute. Teknikari baten soldata bakarrik behar dute funtzionatzeko, eta, hain zuzen ere, soldata urri hori da falta zaiena. Tamalgarria litzateke, beraz, irakurzaletasuna hain modu agerian bultzatzen duen eta hain presu-postu urria duen sariketa bat galtzen utziko bagenu. •

Ikasturte amaierako festak

Maddi AIESTARAN
IPARRAGIRRE

San Joan suak pizterako itzaltzen dira ikasgeletako argiak gurean. Batzuek jarraituko dute sanjoanetatik aurrera ere lanera joaten, baina ikasgela gehienetako lanak hortxe bukatzen dira, urteko egunik luzeenaren atarian.

Bukaera horren aurretik, ikasgeletan, ekaina bete ohi da azterketaz, talde-lanez, pelikulaz, errekupeazioz, GRAL-ez, izerdi usainez, txangoz, batezbestekoz, presioz, tutoretza-orduz. Eta horien artean, haien lekua izaten dute ikasturte amaierako festek: guk,

gurasoen eta lagunen aurrean buruz ikasitako esketxak eta bertsoak aurkeztzen genituen lehen; Salouko disko-teka ilunenetan elkarren izerdiari pegatuta dantza egiten genuen gero. Ilusioa egiten duten gauzak; adinaren arabera diferenteak. Unibertsitateko ikasketak amaitu genituenetik, ez dugu ikasturterik festan amaitu. Edo bai, baina ez izendapen horrekin.

Ikasturte amaierako festak modu bat izaten dira ikasgelako argiak itzali izana ospatzeko. Elkartzeko ikasturtean zehar ondoan izandakoekin eta ilusioa

egiten duten gauzak egiteko; adinaren arabera diferenteak.

Sanjoanetatik aurrera ere lanera joatea tokatuagatik, nire kalkuluen arabera, oraintxe da ikasturte amaierako festen aroa; baita toki guztietako festak kolapsatzen diren aroa ere. Nik us-te dut, egun batez, ikasturtea amaitutzat ematera noala. Festa bat proposatuko diet lagunei: elkartu gaitzen, eta egin ditzagun ilusioa egiten diguten gauzak elkarrekin. Ospatu gabe utzitako ikasturte amaiera denen alde topa egin dezagun. •